

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA; HORREN BIDEZ ONARTU EGITEN DA [REDACTED] ANDREAK, ASPURUBEGI TIRO OLINPIKOKO KIROL KLUBEKO PRESIDENTEAK BIZKAIKO EHIZA FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE-BATZORDEAREN 2016KO MARTXOAREN 17KO EBAZPENAREN KONTRA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA (6/2016 ESP.) ETA ARTXIBATU EGITEN DA —HORREN ONDORIOZ XEDEA GALDU DUELAKO— ERREKURTSOGILE BERAK BIZKAIKO EHIZA FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE-BATZORDEAREN 2016KO APIRILAREN 11 ETA 14KO ERABAKIEN KONTRA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA (9/2016 ESP.)

6/2016 eta 9/2016 espediente bateratuak

AURREKARIAK

Lehena.- 2016ko martxoaren 29an, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen (aurrerantzean, Batzordea) erregistrora sartu zen [REDACTED] andreak, Aspurbegi tiro olinpikoko kirol klubeko presidente izanik, Bizkaiko Ehiza Federazioaren hauteskunde-batzordearen 2016ko martxoaren 17ko ebazpenaren kontra aurkeztu zuen errekurtsoa. Lehendik aurkeztutako erreklamazio batean eskatu zen hauteskunde-errolatik kentzea identifikazio fiskaleko zenbakirik (IFZ) ez zuten edo IFZrik aurkeztu ez zuten pertsona juridikoen kirol-elkarte edo klubak, eta Federazioaren martxoaren 17ko ebazpen horretan ez zen erabakirik ematen erreklamazio horren inguruan (6/2016 esp.).

Bigarrena.- 2016ko maiatzaren 2an Batzordearen erregistrora sartu zen errekurtsogile berak aurkeztutako beste errekurtsu bat, Bizkaiko Ehiza Federazioko hauteskunde-batzordeak 2014ko apirilaren 11n eta 14an emandako erabakien kontra. Horien bidez, [REDACTED] jaunaren presidentetzarako hautagaitza behin-behinean onartu zuten eta gerora presidente izendatu zuten (9/2016 esp.).

Hirugarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu hori tramitatzea erabaki zuen, eta espedientea eskatu zion eta audientzia-tramitea eskaini zion Bizkaiko Ehiza Federazioari.

Laugarrena.- 6/2016 espedienteari dagokionez, Bizkaiko Ehiza Federazioko hauteskunde-batzordeak alegazio-idazki bat bidali zuen 2016ko apirilaren 22an, baina horrekin batera ez zuen igorri hauteskundearen espedientea osatzen duen dokumentazioa.

Hori dela-eta, 2016ko maiatzaren 20ko idazki baten bidez (irteera-data: 2016ko maiatzaren 23a, eta Bizkaiko Ehiza Federazioko sarrera-data: 2016ko maiatzaren 26a), lurralde-federazio horri eskatu zitzaion, bost egun balioduneko epean, honako dokumentazio hau aurkezteko: - Kirol-klub eta kirol-elkarteen estamentuaren behin-behineko hauteskunde-errola, hauteskunde-batzordeak onartutakoa; - Aspurbegi tiro olinpikoko kirol-klubak behin-behineko hauteskunde-errola horren kontra aurkeztu zuen errekurtsua; - Kirol-klub eta kirol-elkarteen estamentuaren behin betiko hauteskunde-errola, hauteskunde-batzordeak onartutakoa.

Bizkaiko Ehiza Federazioak ez du eskaria bete eta ez du eskatutako dokumentazioa bidali.

Bosgarrena.- 9/2016 espedienteari dagokionez, Bizkaiko Ehiza Federazioko hauteskunde-batzordeak alegazio-idazki bat eta espedientearen parte den dokumentazioa bidali zituen 2016ko maiatzaren 27an.

Seigarrena.- 2016ko ekainaren 22an, [REDACTED] errekurtsogileari eskatu zitzaion Aspurbegi tiro olinpikoko kirol-klubeko presidentea dela eta errekurtsuak aurkezteko gaitasuna duela frogatzeko, eta 2016ko ekainaren 29an aurkeztutako idazki baten bidez egin zuen hori.

Zazpigarrena.-

2016ko

maiatzaren

27an

██████████ jaunak Bizkaiko Ehiza Federazioko hauteskunde-prozesuaren inguruko errekursoetan alderdi interesduntzat hartzea eskatu zion Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, prozesu horren bidez presidente hautatu baitzuten, eta errekursoen kopia eskatu zuen bere interesen alde errekursoak aurkeztu ahal izateko. Batzordeak onartu egin zuen eskari hori, errekursoen kopia bidali zion eta audientzia-tramitea eskaini zion alegazioak aurkez zitzaizkion. Ez da ██████████ jaunaren alegaziorik jaso.

Zortzigarrena.- Kontuan izanda bi errekursoak bere presidentearen ordezkartzaren bitartez kirol-erakunde berak aurkeztu dituela, prozesu berari buruzkoak direla eta hauteskunde-prozesu beraren hainbat faseri dagozkiola, biak batera ebaztea erabaki da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.b) artikulua eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikulua eskumena aitortzen diote organo honi «*kirol-diziplinako ahalmena duten kirol-organo titularren erabakien aurka jarritako errekursoak aztertzeko eta ebazteko*».

Bigarrena.- ██████████ errekurtsogileak, Aspurbegi tiro olinpikoko kirol-klubeko presidentek zera alegatzen zuen 6/2016 espedientea abiarazi zuen errekursoan: Kirol-klub eta kirol-elkarteen hauteskunde-errola, Bizkaiko Ehiza Federazioaren hauteskunde-batzordeak argitaratutakoa, ez zela indarreko araudiaren araberakoa. Izan ere, eroldan ez zen klubak IFZ ematen, hauteskunde-prozesu horretan aplikatzeko den arauak ezartzen duen bezala (Agindua, 2012ko otsailaren 19koa, Kulturako sailburuarena, euskal kirol federazioen eta lurralde federazioen hauteskunde-

erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituen, 22. artikulua).

2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 22. artikulua, zehazki, honako hau dio:

«Hauteskunde erroldako inskripzioak, gutxienez, izen-abizenak, nortasun agiria, sexua eta federazio-lizentziaren zenbakia jasoko ditu pertsona fisikoen kasuan. Pertsona juridikoen kasuan, berriz, inskripzioak gutxienez sozietatearen izena, identifikazio fiskalaren zenbakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroko inskripzio-zenbakia eta federazio-afiliazioaren zenbakia bilduko ditu».

Azkenik, Batzorde honi eskatzen dio errekurtsua aurkeztutzat jotzeko eta *«kautelaz bertan behera uzteko behin betiko erroldaren onarpena, errolda horretan izena emateko nahitaezko baldintzetako bat falta delako, eta horrek estamentuen osieran eragina izan dezakeelako».*

Bizkaiko Ehiza Federazioak alegazio-idazki bat aurkeztu du bere hauteskunde-batzordearen bidez (ez du, ordea, espedientea osatzen duen dokumentazio bidali, Batzordeak eskatu zion bezala) eta bertan esaten dutenez, ez dute uste lurralde-federazio horren kirol-klub eta kirol-elkarteen erroldan osatzen duten pertsona juridikoen IFZ agertzea ezinbestekoa denik, Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 22. artikulua baldintza hori ezarri arren.

Uste dute errekurtsua onartzeko edo ukatzeko araudi guztia aztertu behar dela bere osotasunean eta aipatutako 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 24. artikulua aipatzen dute, errolda egiterakoan hauteskunde-batzordeak emandako lizentzia guztiak kontuan hartu behar dituela argudiatzeko, era egokian edo desegokian eman ziren baloratu gabe, IFZ federazioan izena emateko baldintza bat balitz (eta ez da).

Eta, haien ustez, hori ez da baldintza bat 16/2006 Dekretuaren 23. eta 25.3 artikuluetan ez delako xedatzen kirol-federazio batean sartzeko eta lizentzia eskuratzeko IFZ eskuratzea ezinbestekoa denik (16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena). Era berean, hauteskunde-prozesuetan hautesle eta hautagai izateko kirol-klub eta kirol-erakundeei ezartzen zaizkien baldintzen artean ere ez da halakorik eskatzen, aipatutako 16/2006 Dekretuaren 79. artikulua araberera.

Era berean, argudiatzen dutenez, 163/2010 Dekretuaren 6. eta 8. artikuluen araberera, IFZ aurretik eskuratzea ez da beharrezkoa Kirol Erakundeen Erregistroan izena emateko eta nortasun juridikoa eskuratzeko (163/2010 Dekretua, ekainaren 22koa, kirol-klubei eta kirol-elkarteei buruzkoa).

Guzti horren ondorioz, haien ustez, dagokion erroldan agertu ahal izateko IFZ beharrezkoa dela 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 22. artikuluan baino ez da esaten, eta hori ez da nahikoa baldintza hori ezinbestez eskatzeko, are gehiago obligazioa ezartzen duen arauak agindu-maila duenean, aipatu diren gainerako arauak dekretu-maila duten bitartean.

Ondorioz, kirol-klub bat sortzeko, lizentzia lortzeko eta dagokion federazioan sartzeko IFZ aurrez lortzea ezinbesteko baldintza ez denez, eta IFZrik ez izateak hauteskundeetan zer ondorio dituen ezartzen duen araurik ez dagoenez, 2012ko otsailaren 19ko Aginduko 22. artikuluko eskaera modu hermeneutikoan ulertu behar da, hau da, informazio-ondorioetarako eskaera gisan: *«hau da, ulertu behar da klubak estamentuen araberako erroldan IFZ agertu dela, beste datu batzuen artean, klubak HALAKORIK BALU»*. Horrela, *«IFZ eskuratu ez duten klubek, federazioko kide badira, ez dute estamentuetako kideen eskubideak baliatzeko gaitasuna galtzen, eta horien artean dago hautesle eta hautagai izatekoa»*. Ondorioz, *«IFZ ez lortzearen ondorio juridikoak fiskalitateari buruzkoak izango dira bakarrik, eta hori aurrez eskuratzea eskubide edo jarduera baterako nahitaezko baldintza den kasuetan aplikatuko dira (adibidez, diru-laguntza publikoak, bankuko operazioak, kontratazioa, etab...)»*.

Hori guztia dela-eta, hauteskunde-batzordearen iritziz, errekurtoa ez litzateke onartu behar eta hauteskunde-errolda ez litzateke baliogabetu behar.

Hirugarrena- 9/2016 espedientea abiarazi zuen errekurtoari dagokionez, errekurtsogile berak, bere kirol-kluba ordezkatzuz, Bizkaiko Ehiza Federazioaren hauteskunde-batzordeak 2016ko apirilaren 11n eta 14an hartutako erabakien aurka egiten du eta «batik bat, Francisco Javier Barona González jaunaren presidentetzarako hautagaitza behin-behinean hautatzearen eta gerora presidente izendatzearen aurka».

Errekurto horretan, funtsean, argudiatzen da hauteskundeetako ekintza horiek hauteskunde-batzordeak onartutako eta aurreikusitako datetan egin ez zirela. Izan ere, *«ulertezina bada ere, akta horiek 2016ko apirilaren 11n eta 14an ematen dira, eta presidentea hautatzeko prozesua amaitzen dute, baina hauteskunde-batzordeak berak ezarritako hauteskunde-egutegiaren arabera (aktak eta hauteskunde-egutegia eransten dira) hautagaitzak aurkezteko epea 2016ko apirilaren 16an hasten zen, eta prozesuaren ondorengo urratsak apirilaren 20an, 21ean, 23an eta 25ean ziren egitekoak»*.

Kasu honetan bai, hauteskunde-batzordearen bitartez, Bizkaiko Ehiza Federazioak errekurtoaren gaia den espedientea osatzen duen dokumentazioa bidali zuen eta, gainera, alegazio-idazki bat aurkeztu zuen. Bertan honako hau esaten da:

1.- Beste ezeren aurretik, errekurtsogileak ez du frogatu klubeko ordezkaria denik eta ez du aurkeztu errekurto hori egiteko erabakia hartu zuen gobernu-organoaren (hau da, klubaren batzar orokorraren) akordioaren kopiarik.

Ebazpen honen seigarren aurrekarian azaldutakoaren arabera, 2016ko ekainaren 22an, [REDACTED] errekurtsogileari eskatu zitzaion Aspurubegi tiro olinpikoko kirol-klubeko presidentea zela eta

errekursoak aurkezteko gaitasuna zuela frogatzeko, eta 2016ko ekainaren 29an aurkeztutako idazki baten bidez egin zuen hori.

2.- Errekursoaren gaiari dagokionez, Bizkaiko Ehiza Federazioaren hauteskunde-batzordearen ustez, errekursoak ez du hauteskunde-prozesua oztopatzea beste helbururik eta hauteskundeetako zenbait ekintzaren datak aurreratzea justifikatu du batzar orokorrera aurkeztu ziren hautagaitzen kopuruak bete beharreko postuen kopuruarekin bat egiten zuelako eta, ondorioz, ez zelako beharrezkoa izan estamentuen arabera hauteskundeak egitea.

Hori ikusita, prozeduraren ekonomia-printzipioa aintzat hartuta, presidentetzarako hautagaitzak aurkezteko epea aurreratu zen, eta hautagaitza bakarra aurkeztu zen. Horrela, datak aurreratzeak ez zion inori kalterik egin, ezta errekurtsogilearen klubari ere, ez baitzuen presidentetzarako hautagaitzarik aurkeztu, nahiz eta espresuki eskatu zitzaion hori egiteko, nahi bazuen, eta ez zion eskaera horri erantzunik eman.

Hori guztia kontuan hartuta, errekurtsogileak asmo maltzurrez jokatu duela ondorioztatzen dute, eta hori gai honi aplikagarri zaizkion printzipioen kontrakoa denez, ez da kontuan hartu behar errekurtsogileak hauteskunde-prozesua errepikatzeko egindako eskaera.

Hortaz, Bizkaiko Ehiza Federazioaren hauteskunde-batzordearen iritziz prozesua guztiz zuzena izan zen eta, edonola ere, egindakoa ez litzateke erabat deuseza izango, ekintza ezeztagarri bat baizik eta, azaldutako arrazoen arabera, baliozkotu beharko litzateke. Hori guztia dela-eta, errekursoa guztiz gaitzestea eskatzen dute.

Laugarrena.- Errekursoaren *petitum*-ean, agian guztiz zuzena ez bada era, «behin betiko erroldaren onarpena kautelaz bertan behera uzteko» eskatu zen arren, ulertu behar da benetako asmoa Batzordeak Bizkaiko Ehiza Federazioaren kirol-klub edo kirol-elkarteen estamentuko hauteskunde-erroldaren deuseztasuna aldarrikatzea dela, zerrenda hori osatzen duten

pertsona juridikoen IFZ ez delako agertzen eta horren ondorioz Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 22. artikuluan xedatutakoa urratzen da. Hauxe dio artikulua horrek (letra lodiak eta azpimarratuak gureak dira):

*«Hauteskunde erroldako inskripzioak, gutxienez, izen-abizenak, nortasun agiria, sexua eta federazio-lizentziaren zenbakia jasoko ditu pertsona fisikoen kasuan. **Pertsona juridikoen kasuan, berriz, inskripzioak gutxienez** sozietatearen izena, **identifikazio fiskalaren zenbakia**, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroko inskripzio-zenbakia eta federazio-afiliazioaren zenbakia **bilduko ditu**».*

Agindu horren edukia argia da eta interpretazio bakar bat baino ezin daiteke egin: dagokion hauteskunde-erroldan pertsona juridikoak agertzen direnean nahitaez agertu behar da horien identifikazio fiskaleko zenbakia.

Gainera, baldintza edo eskaera hori kulturaren (eta kirolaren) arloko ardura duten sailburu guztiek behin eta berriz txertatu da 2000tik hona, euskal kirol-federazioetan eta lurraldeetakoetan hauteskundeetarako araudiak egiteko eta hauteskundeak egiteko irizpideak ezartzeko ebazpen guztietan (2000ko, 2004ko, 2008ko eta 2012ko aginduak). Horietako bakar baten kontra ere ez da errekurtsorik aurkeztu administrazioarekiko auzibidean, eta hortaz ondorioztatu behar dugu kirol-arloko pertsona eta erakundeek horien edukia ezagutzen dutela eta ordenamendu juridikoaren arabera dela eduki hori.

Kirol-klub edo kirol-elkarte bat federazioko kide bilakatzeko edo lizentzia lortzeko IFZ beharrezkoa ez izateak ez du esan nahi beste helburu batzuetarako ezin denik hori ezinbesteko baldintza bezala ezarri. Eta, egia esan, badirudi euskal kirol-federazioetan eta lurraldeetakoetan hauteskundeetarako araudiak egiteko eta hauteskundeak egiteko irizpideak ezartzeko eskumena izan duten eta dutenen borondatea hori izan dela, hau da, pertsona juridikoei IFZ izateko baldintza ezartzea dagokien erroldan parte hartzeko. Gainera, obligazio hori auzirik gabe onartu dute kirol-federazioek eta

horien kide direnek, ez dutelako baldintza hori bertan behera uzteko asmoa zuen ekintza judizialik abiarazi.

Bestalde ez dago inolako kontraesanik Euskadiko kirol-federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak eta kirol-klubei eta kirol-elkarteei buruzko ekainaren 22ko 163/2010 Dekretuak xedatzen dutenaren eta Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduak ezartzen duenaren artean.

Aipatutako dekretu horiek kirol-klub edo kirol-elkartek federazioko kide egiteko eta lizentzia eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak ezartzen dituzte, edo kirol-erakundeen erregistroan izena emateko beharrezkoak diren baldintzak; Aginduak, aldiz, hauteskundeetarako araudi osagarri bezala jokutzen du eta pertsona juridikoek hauteskunde-eroldan agertzeko bete behar dituzten baldintzak ezartzen ditu, horien artean dagokien identifikazio fiskaleko zenbakia edo IFZ izatea (hori, bide batez, federazio bateko kide diren eta kirol-erakundeen erregistroan izen emanda dauden kirol-klub edo kirol-elkartek baino ezin dute eskuratu).

Bizkaiko Ehiza Federazioko hauteskunde-batzordeak aurkeztutako alegazio-idazkian esaten duenez, pertsona juridiko baten IFZ hauteskunde eroldan agertzearen helburu bakarra informazioa ematea da: *«hau da, ulertu behar da klubak estamentuen araberrako eroldan IFZ agertu dela, beste datu batzuen artean, klubak HALAKORIK BALU»*.

Ez dakigu aipatutako federazio horretako hauteskunde-batzordeak klubak IFZ eroldan sartu duen, informazioa emateko asmoarekin, IFZ duten kirol-klub edo kirol-erakundeen kasuan, edo zuzenean ez duen informazio hori eman, lurralde-federazio horrek ez baititu behin-behineko eta behin betiko erroldak bidali, Batzorde honek espresuki eskatu arren.

Hauteskunde-batzordearen jarrera saiheskor horrek, edonola ere, argi uzten du ez zaiola nahikoa garrantzi ematen Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduren 22. artikulua betetzeari, araua ez betetzeak hauteskunde-prozesua behar bezala ez egitea eragin baitezake ere.

Hortaz, azaldutako arrazoiketaren ondorioz, egokia da Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek Aspurbegi tiro olinpikoko klubaren presidenteak aurkeztutako errekurtoa onartzea. Horrela, deuseza da Bizkaiko Ehiza Federazioaren kirol-klub eta kirol-elkarteen estamentuko errolda, ez baitu errolda horretako kide diren pertsona juridikoen IFZ adierazten. Ondorioz, federazio horretako hauteskunde-batzordeak beharrezko erabakiak hartu beharko ditu hauteskunde-prozesua erabaki honetan jasotakoaren arabera egin dadin, eta deuseztasun-adierazpen honek eragiten ez dien hauteskunde-ekintzek baliozkoak izaten jarraituko dute.

Bosgarrena.- Kirol-klub eta kirol-elkarteen estamentuko erroldaren deuseztasuna deklaraturata, atzeraeragina gertatzen da hauteskunde-prozesuan deuseztasunaren kausaren fasera arte, baliozkoak izaten jarrai dezaketen hauteskunde-ekintzen kalterik gabe. Horren eraginez, planteatutako bigarren errekurtoa (9/2016 espedientea abiarazi zuena), onartutako hauteskunde-egutegiko epeak ez betetzeari buruzkoa, xederik gabe geratzen da, hauteskunde-batzordeak egutegi berri bat onartu beharko baitu errepikatu behar diren hauteskunde-ekintzetarako.

Hortaz, egokia da Bizkaiko Ehiza Batzordearen hauteskunde-batzordeak 2016ko apirilaren 11n eta 14an hartu zituen erabakien kontrako errekurtoa artxibatzea, esan dugun bezala, aurreko erabakiaren ondorioz xedea galdu duelako.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

ERABAKI DU

1.- [REDACTED] andreak, Aspurbegi tiro olinpikoko klubeko presidenteak Bizkaiko Ehiza Federazioaren hauteskunde-

batzordearen 2016ko martxoaren 17ko ebazpenaren kontra aurkeztu zuen errekurtsua onartzea, eta kirol-klub eta kirol-elkarteen estamentuko hauteskunde-eroldaren deuseztasuna deklaratzeko, horrek hauteskunde-prozesuan dituen ondorioekin.

2.- Bizkaiko Ehiza Batzordearen hauteskunde-batzordeak 2016ko apirilaren 11n eta 14an hartu zituen erabakien kontrako errekurtsua artxibatzea, aurreko erabakiaren ondorioz xedea galdu duelako.

3.- Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsua Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo errekurtsogileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 14a.

JOSÉ LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea